



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko irailaren 11

75. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzkoa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, 2008-2011 eperako martxoaren 23ko 6/2007 Foru Legean aurreikusitako borondatezko erretiroaren sari osagarriaren zenbatekoa ezartzen duena. Foru Lege horren bidez unibertsitatetik kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatu ziren (8. or.).

#### D SAILA:

##### **Hitzarmenak:**

- Ingurumen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Ubidea egiteko (14. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, egoera ekonomikoaren gaineko iritzia eta jarduerari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (17. or.).
- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak krisialdiari aurre egiteko ezarritako murrizketek egitura publikoan eta sozialean izanzen duten eraginari buruzkoa, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak egina (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gizarte teknologiaren arloko ikerketa sardezan, jarduera gisa, Osasun Departamentuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak elkarrekin osasunaren eta medikuntzaren arloko ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak eta -jarduerak sustatzeko eta garatzeko duten lankidetzaren hitzarmenaren barruan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren arazoak aztertu eta antolamendu eta/edo kudeaketa eredu berriari heltzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (20. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erregelamendu bidez gara dezan Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 68. artikuluan xedatutakoa, % 1 kulturala programari dagokionez. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pertsona fisikoen ondarearen gaineko zerga mantentzeko, superabitak gastu eta inbertsio sozialari aplikatu diezazkion, Iberdrolan duen partaidetza sal dezan eta lehentasunik ez duten azpiegituretan inbertsiorik egin ez dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (23. or.).
- Adierazpen instituzionala, Kooperantearen Eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (24. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Administrazio isiltasuna aurkaratzeko preklusio epeen zuzenbide erregimenaren gaineko txosten berezia, Nafarroako arartekoaren bulegoak egin (25. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2008ko uztailaren 21ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 109 eta 126. artikuluetan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.-** Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzko Foru Lege proiektua presako prozedura jarraikiz izapidetzea.

**2.-** Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia eta Ogasun Batzordearen esku uztea.

**3.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epea hasiko da eta 2008ko irailaren 24ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkio proiektuari.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzkoa**

### **ZIOEN AZALPENA**

Egoera ekonomikoari dagokionez, jardueraren desazelerazio argia bizi dugu egun, bai nazioartean bai Espainian, eta horrek, dudarik gabe, eragina izanen du Nafarroako ekonomian. Egoera honen jatorrian nazioarteko finantza krisia, petrolioaren prezioen gorakada nabarmena eta lehengaien garestitze orokorra daude; Espainian, gainera, etxebizitzaren eraikuntzaren sektorea, duela gutxira arte ekonomia nazionalaren eragileetako bat izan dena, gelditu egin da bat-batean. Aurka ditugun fenomeno ekonomiko horiek eragin handiak dira eta, epe laburrean nahiz ertainean, aurrean testuinguru ekonomiko zaila izanen dugula iradokitzen dute.

Nafarroako Gobernua, egoeraz jabeturik, egoera ekonomiko negatibo honi aurre egiten ahalegintzeko xedeari begira jarri eta ekintza politikoa zenbait ildo jorratzen aritu da azken hilabeteotan. Ekimenek printzipio hauek dituzte gidari:

– Jarduera ekonomikoa sortzea enpleguen desagerpenari mugak jarri ahal zaizkion sektoreetan, bereziki eraikuntzan, etxebizitzaren zaharberrietan eta azpiegitura publikoetan.

– Pertsonen eta familien lagunduko dieten erforma fiskalak bultzatzea, PFEZaren bidez, bai eta enpresei ere, BEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren kudeaketaren bidez.

– Enpresa ekimenak arintzea, abalak lortzeko bideak erraztuz eta, horren ondorioz, ekimen pribatuko proiektuetarako finantzaketa.

– Gastu publikoa kontrolatzea, zergen bidezko diru-bilketa txikiagoak defizit fiskal handirik ekar ez dezan.

Ekimen publiko horietan guztietan, Nafarroako Gobernuak behar zen adostasuna bilatu du beste indar politikoen artean, batetik neurriak gauzatzeko sostengua lortu behar zelako eta, bestetik, beste alderdi politiko garrantzizko batzuek Nafarroako ekonomiaren egoera konplexu honi aurre egiteko ekintzak proposatzen parte-hartze aktiboa izateko asmoa adierazia zutelako.

Esparru zabaleko lehen neurria "NAFARROA 2012" PLANA izan da, Nafarroako Gobernuak 2008ko apirilaren 21ean onetsia, 2008ko apirilaren 14an Nafarroako Alderdi Sozialistarekin akordioa izenpetu ondoren. Plan horretan aurreikusirik dago 2008tik 2011ra bitarteko urteetan 4.508,9 milioi euroko inbertsioa egitea ekipamendu eta azpiegitura publikoetan. "Nafarroa 2012 plana" 2008ko maiatzaren 23an onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak.

Nolanahi ere, Nafarroako ekonomia suspertze-ko neurri garrantzitsu hau finantza eta zerga arloetako neurriekin osatu behar da, eta horretarako prestatu da foru lege hau, bai eta aurrerago kasuan kasuko arau mailarekin ezarriko diren beste ekimen batzuk ere.

Neurri fiskalek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren esparruei eragiten diete.

Lehenbizikoan neurri ugari hartu dira, gehien bat Nafarroan 2009tik 2011ra etxebizitzak zaharberritzea sustatzeko politika aktiboaren inguruan, eta halaber PFEZaren bidez zama fiskala nabarmen murrizteko xedearrekin, zergak ordaintzen dituzten errenta baxuenen kasuan.

Hortaz, ohiko etxebizitza zaharberritzearen kontzeptua malgutu egin da, tratamendua Balio Erantsiaren gaineko Zergak ematen dionaren antzekoa izan dadin; nabarmen handitu da orain arte indarra izan duten kenkarien zenbatekoa; eta pizgarri berezi bat ezarri da zaharberritzeko lanek energia eraginkortasuna hobetzeko neurriak ere hartzen dituzten kasurako.

Bestalde, laneko kenkaria aldatu da, helburu hauekin:

1. Lan etekinen zerga tratamendua hobetu, eta zergaren ekitatea eta zuzentasuna areagotzea.

2. Zergaren progresibitatea areagotzea, kenkaria handiagoa izatea onuragarria baita laneko errenta txikientzat, eta onura hori zenbat eta eskalan altuago egon tartea orduan eta txikiagoa da. Horretarako, lau tarte ezarri dira kenkaria kalkulatzeko, orain dauden hiruen ordeez.

3. Familiak erabilgarri duten errenta handitzea. Kenkaria handitzeak baliabide erabilgarri gehiago emanen dizkie zergadunei, eta horrek lagunduko du barneko eskaera bultzatzen, bai kontsumoarena bai inbertsioarena, produkzioa sustatzen eta jarduera handiagoa sortzen.

Foru lege honek ezartzen duen lan kenkari berria handiagoa da zenbatekoari dagokionez eta, lehen esan bezala, lau tarte ezarri dira hura kalkulatzeko.

Lehendabiziko tartean 9.100 euroko lan etekin garbiak edo txikiagoak dituzten zergadunak daude; horien kasuan kenkaria egungo 850 euroko zenbatekoa izatek 1.290 euro izatera pasatuko da, eta beraz 440 euro gehiagokoa izanen da.

Bigarren tartean 9.100,01 eurotik 10.600 eurora bitarteko lan etekin garbiak dituzten zergadunak daude. Subjektu pasibo hauen lan kenkaria 1.290 eurokoa izanen da gehienez, eta murrizten joanen da gutxienez (1.140 euro) iritsi arte, eragiketa hau eginez: 1.290 euroko zenbatekoa ken etekin garbi horien zenbatekoaren eta 9.100 euroren arteko kendura bider 0,1 eginik ateratzen den emaitza.

Hirugarren tartean 10.600,01 eurotik 45.800 eurora bitarteko lan etekin garbiak dituzten zergadunak daude. Subjektu pasibo hauen lan kenkaria 1.140 eurokoa izanen da gehienez eta murrizten joanen da gutxienez (700 euro) iritsi arte, eragiketa hau eginez: 1.140 euroko zenbatekoa ken etekin garbi horien zenbatekoaren eta 10.600 euroren arteko kendura bider 0,125 eginik ateratzen den emaitza.

Laugarren tartean 45.800 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten zergadunak daude; horiek 700 euroko kenkaria aplikatuko dute. Horrekin alderaturik, esan beharra dago egungo araudian 700 euroko kenkari finko hori 10.600 eurotik gorako lan etekinak dituzten zergadunek aplikatzen dutela.

Elbarritasuna duten jarduneko langileen kasuan, kenkaria 1.500 eurokoa izatek 1.750 eurokoa izatera pasatuko da, elbarritasun maila % 33koa edo handiagoa eta % 65 baino txikiagoa dela frogatzen denean; % 65eko elbarritasuna edo handiagoa duten jarduneko langileek, berriz, 3.250 euroko kenkaria aplikatuko dute, egungoa, 3.000 eurokoa, baino hobe, beraz. Laburbilduz, langile horien kenkaria 250 euro handiagoa izanen da, kontuan harturik gaur egun kenkariaren zenbatekoa ere zenbateko finko bat dela.

Sozietateen gaineko zergaren esparruan, has-teko, libre amortizatu beharreko elementuen unita-

teko zenbatekoa hirukoiztu egin da, eta 600 eurokoa izatetik 1.800 eurokoa izatera pasatu da. Horrekin batera, amortizazio azkarraren koefizientea igo da enpresa txikientzat, eta amortizazio taulan aurreikusitako koefizienteak bider 2 egin ahal izanen dituzte, orain arte aurreikusitako 1,5aren orde.

Finantzen arloan, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, abalak emateko, gehienez ere 30.000.000 euro eginen dutenak, jarduera ekonomikoaren sektore zehatz batzuetara zuzendutako inbertsioen finantzaketan laguntzeko.

Foru lege honek hamar artikulua, xedapen gehigarri bat eta indarra hartzeari buruzko azken xedapen bat dauzka; denborari dagozkion ondorioak zehatz-mehatz aurreikusirik daude kasu bakoitzean.

## I. KAPITULUA Neurri fiskalak

**1. artikulua.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren aldaketa.

Bat. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62.1 artikuluan a) letraren b') azpiletrak ondotik ematen den testua izanen du. Testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

“b’). Xede nagusia etxebizitzaren egitura, aurreko aldea, estaldura edo antzekoak sendotuz eta tratatuz berreraikitzea duen obra, baldin eta lanen kostu osoak % 25 gainditzen badu erosketaren prezioa, betiere erosketa hori lanak hasi aurreko bi urteetan egin bada, edo, bestela, lanen kostu osoak etxebizitzak lanak hastean zeukan merkatuko balioa gainditzen badu. Ondorio horietarako, etxebizitzaren erosketa prezioari edo merkatuko balioari lurzoruari dagokion kostu proportzionala kenduko zaio.”

Bi. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62. artikuluan 5. idatz-zatiak ondotik ematen den testua izanen du. Testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

“5. Laneko kenkaria.

1. Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboak diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

a) 9.100 euroko edo hortik beherako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.290 euro.

b) 9.100,01 eurotik 10.600 eurora bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.290 euro ken etekin garbi horien eta 9.100en arteko kendura bider 0,1 eginik ateratzen den emaitza.

c) 10.600,01 eurotik 45.800 eurora bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.140 euro ken etekin garbi horien eta 10.600en arteko kendura bider 0,0125 eginik ateratzen den emaitza.

d) 45.800 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro.

2. Elbarritasun maila % 33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa izanik, jarduneko langile gisa aritu eta lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboaren kasuan, aurreko idatz-zatian aipatzen den kenkaria 1.750 eurokoa izanen da. Elbarritasun maila % 65ekoa edo handiagoa dutezentzat kenkaria 3.250 eurokoa izanen da.

3. Bosgarren idatz-zati honetan aurreikusitako kenkariaren zenbatekoak ezin izanen du gainditu foru lege honetako 59.1 artikuluko eskala lan etekin garbiei aplikatuz heldu den emaitza.”

**2. artikulua.** Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen aldaketa.

2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 16.1 artikuluan d) letrak testu hau izanen du:

“d) 1.800 eurotik beherako unitate balioa duten ibilgetu materialaren elementuak.”

**3. artikulua.** Ohiko etxebizitza zaharberritzeko eta energia eraginkortasunerako laguntza plan berezia.

Ohiko etxebizitza zaharberritzeko lanak 2009tik 2011ra bitarte, bi urteak barne, hasten diren kasurako, hogeita zortzigarren xedapen gehigarria gehitu zaio ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginari:

“Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Ohiko etxebizitza zaharberritzeko eta energia eraginkortasunerako laguntza plan berezia.

Testu bategin honen 62. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, zergaldian ohiko etxebizitza zaharberritzeko ordaindutako diru-kopuruak ondoko tratamendua izanen dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, ohiko etxebizitzako inbertsioaga-

tik kuotan egin beharreko kenkariari dagokionez, baldin eta etxebizitza eta hiri ondarea zaharbertzeko babesari dagokionez legez eskatu daitezkeen baldintzak bete eta Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak emandako egiaztagiriaren bidez frogatzen badira:

1. Oro har, testu bategin honen 62.1 artikulua- ren a) eta g) letretan ezarritako kenkarien portzentajeak hiru puntu handiagoak izanen dira, hurrenez hurren % 18koa, % 21ekoa eta % 33koa.

2. Zaharbertzeko lan horiek energia eraginkortasuna hobetzekoak ere barne hartzen badituzte, testu bategin honen 62.1 artikulua- ren a) eta g) letretan ezarritako kenkarien portzentajeak bost puntu handiagoak izanen dira, hurrenez hurren % 20koa, % 23koa eta % 35ekoa.

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egiaztatuko du lan horiek 2009tik 2011ra bitarte -bi urteak barne- hasi direla eta energia eraginkortasuna hobetzekoak ere barne hartzen dituztela, hala bada, etxebizitzaren zaharbertze babesturako espedienteen kalifikazio zedulak luzatuz. Hasitako obratzat hartuko dira zaharbertze babestuaren behin-behineko kalifikazioa 2009-01-01etik 2011-12-31ra bitarte eskatu eta jasotzen dutenak. Sektoreko araudi berariazkoan erregelamenduz ezarri ahalko da zaharbertzeko lanek zein kasutan barne hartzen dituzten energia eraginkortasuna hobetzekoak.”

**4. artikulua.** Enpresa txikientzako ondare elementuen amortizazio azkarra.

2009tik 2011ra bitarte, biak barne, hasitako zergaldietarako, hamalagarren xedapen gehigarria gehitu zaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeari:

“Hamalagarren xedapen gehigarria. Enpresa txikientzako ondare elementuen amortizazio azkarra.

Jardunean 2009. urtea baino lehenago hasi diren ondare elementuen gainean foru lege honen 14.7 artikuluan ezarritako amortizazio koefiziente gehitua erabiltzeko eskubidea duten subjektu pasiboek aplikatu ahal izanen dute, elementu horiei dagokienez, ofizialki onetsitako amortizazio tauletan aurreikusten den amortizazio koefiziente altuena bider 2 eginik lortutako emaitza.

Era berean, foru lege honen 14.7 artikuluan ezarritakoaren arabera, ibilgetu materialeko elementu berriak eta ondasun higiezinak inbertsio berriak, foru lege honen 50.1.b) artikuluan ezarritako baldintzak betetzen diren zergaldian enpresa txikien esku jarriak badira, eta jardunean 2009an, 2010ean edo 2011n hasi badira, ofizialki onartuta-

ko amortizazio tauletan ezarritako gehieneko amortizazio koefiziente bider 2 egitearen emaitzak adierazten duen koefizientearen arabera amortizatu ahal izanen dira.

## II. KAPITULUA

### Inbertsioari laguntzeko finantza neurriak

**5. artikulua.** Abalak emateko baimena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari abalak emateko, gehienez ere 30.000.000 euro egingen dutenak, hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzetan.

**6. artikulua.** Esparru objektiboa.

Ondoko inbertsioak finantzatzeko operazioetan eman ahal izanen dira abalak:

a) Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak maiatzaren 17an emaniko 155/2007 Foru Aginduan industrian inbertitzeko aurreikusitako eskualdeko laguntzen araubidearen babesean egin daitezkeenak.

b) Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak maiatzaren 17an emaniko 156/2007 Foru Aginduan enpresa txiki eta ertainek, eskualdeko laguntzen mapan sarturik ez dagoen eremuan, industrian inbertitzeko aurreikusitako laguntzen araubidearen babesean egin daitezkeenak.

c) Eskualde-laguntzen 2007-2013 bitarteko mapan sarturik dauden Nafarroako eremuetan, nekazaritzako elikagaien sektoreko produktuak eraldatu eta merkaturatzeko Nafarroako Foru Komunitateko estatu-laguntzei buruzko araudiaren babesean egin daitezkeenak (Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak maiatzaren 14an emaniko 146/2007 Foru Aginduan aurreikusitakoak).

d) Salbuespen gisa, Nafarroako Gobernuak ezartzen dituenak, Nafarroako ekonomiarako duten interes berezia dela eta.

**7. artikulua.** Abalen onuradunak.

Abalak honako hauek jaso ahal izanen dituzte:

a) Aurreko artikuluko a), b) eta c) letretan deskribatutako laguntzetako bat lortu baina foru lege honek indarra hartzen duen egunerako inbertsioa amaiturik ez dutenak.

b) Eskaera foru lege honek indarra hartzen duenetik 2009ko abenduaren 31ra bitarte egiten dutenak.

**8. artikulua.** Abalen gehieneko indarraldia.

Abalen gehieneko indarraldia hamar urtekoa izanen da ematen den egunetik hasita.

**9. artikulua.** Emanen diren abalen zenbatekoa.

Abalen zenbatekoak 60.000 eurotik 600.000 eurora bitartekoak izanen dira, baina ez dira aurreikusitako inbertsioaren % 60etik gorakoak izanen.

Adierazitako muga horiek kalkulatzeko, kontuan hartu beharreko modulua inbertsio proiektu bakoitza izanen da.

**10. artikulua.** Azpiabak.

Nafarroako Gobernuak erabaki ahal izanen du atal honetan aurreikusitako araubidearen menpeko abalak helbide fiskala Nafarroan duen elkarren bermerako sozietate batek ematea; horretarako, sozietate horrekin itunduko dira baldintzak, zeine-

tan Nafarroako Gobernuak abal-emaileordearen izaera izanen baitu.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Abalak emateko prozedura.

1. Foru lege honen II. kapituluaren aurreikusitakoaren babesean emandako abalei ez zaizkie aplikatuko Nafarroako Foru Komunitatean abalak emateko prozedura arautzen duen otsailaren 16ko 49/1989 Foru Dekretuan jasotako xedapenak.

2. Ekonomia eta Ogasun kontseilariari baimena ematen zaio foru lege honetan abalak emateari buruz xedatutakoa aplikatzeko behar diren prozedura eta kudeaketa alderdiak onets ditzan.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra eta ordutik aurrera izanen ditu ondorioak.

**Foru Lege proiektua, 2008-2011 eperako martxoaren 23ko 6/2007 Foru Legean aurreikusitako borondatezko erretiroaren sari osagarriaren zenbatekoa ezartzen duena. Foru Lege horren bidez unibertsitatetik kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatu ziren.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2008ko abuztuaren 25ean hartutako erabakiaren bidez, ondoko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura: "Foru Lege proiektua, 2008-2011 eperako martxoaren 23ko 6/2007 Foru Legean aurreikusitako borondatezko erretiroaren sari osagarriaren zenbatekoa ezartzen duena. Foru Lege horren bidez unibertsitatetik kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatu ziren."

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

1. Arestian aipaturiko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.
2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza Batzordearen esku uztea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2008ko urriaren 3ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Lege proiektua, 2008-2011 eperako martxoaren 23ko 6/2007 Foru Legean aurreikusitako borondatezko erretiroaren sari osagarriaren zenbatekoa ezartzen duena. Foru Lege horren bidez unibertsitatetik kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatu ziren**

**ZIOEN AZALPENEA**

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren xedapen iragankorrak alde aurreko borondatezko erretirorako araubidea ezartzen du estatuko klase pasiboen araubidearen menpean dauden unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzako langileentzat, eta bide ematen die Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean edo aurreikuspen sozialeko beste araubide batzuetan sartuta dauden irakasleen kidegokoetako langileei Estatuko klase pasiboen araubidean jasota dagoen alde aurreko borondatezko erretiroa hartzeko, betiere lege organiko horretan ezarritako baldintzak betetzen direla frogatuz gero.

Horrez gain, arau horretan borondatezko erretiroa hartzean hogeita zortzi urteko zerbitzualdia frogaturik duten funtzionario irakasleei ohiz kanpoko esker-sari bat ematea aurreikusi zen.

Martxoaren 23ko 6/2007 Foru Legeak Foru Komunitateko administratibotik borondatezko erretiro-sari bat jasotzeko eskubidea aitortzen die Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren xedapen iragankorren babesean funtzionario izaerari uko egin edo erretiroa borondatez hartzen duten irakasle funtzionarioei, 60 urtetik gora eta zerbitzuan 28 urte eginda badituzte, betiere legean adierazten diren baldintzak betez gero; sari hori xedapen iragankor hartan ezarritako ohiz kanpoko esker-sariaren osagarri izanen da.



Foru lege horretan aipatutako erretiro saria jasotzeko betebeharrak ezartzen dira, eta eskubidea aplikatzen zaie, halaber, funtzionario izaera ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren babesean edo geroagoko arau baten babesean eskuratu zuten langileei, baita lan itunpeko irakasle finkoei ere. Foru lege horren bidez Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutua aldatu, eta Estatuko Administrazioak eskualdatu beharreko langileen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan sartzea arautu zen.

Hezkuntza Departamentuko eta AFAPNA, CCOO, CSI-CSIF, FETE-UGT eta STEE-EILAS sindikatuetakordek Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko 2007ko martxoan (2007ko uztailaren 20ko :bon.a) sinatu zuten itunaren jarraipenerako batzordean erabaki zen foru lege bat tramitatzea, jasoko duena, batetik, alde zuzeneko borondatezko erretiroa dela eta Nafarroako Gobernuak ematen duen kalte-ordaina kobratzeko eskubidea Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren babesean jarri gabe erretiroa hautatu duten irakasleentzat eta, bestetik, kalte-ordainak igotzea 2008-2011 eperako, %10 urtero. Era berean, erabaki zen 2008rako ezarritako sariak 2007ko irailaren 1etik aurrera alde zuzeneko ohiko erretiroa hartu duten langile guztiei aplikatuko zaiela.

Aurreko guztia kontuan harturik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 b) artikuluan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko funtzionarioen estatutu-araubidearen arloan Nafarroako Foru Komunitateak dituen eskumenak erabiliz, Nafarroako Parlamentuak foru lege hau onetsi du.

**Artikulu bakarra.** Martxoaren 23ko 6/2007 Foru Legean aurreikusitako borondatezko erretiroaren sariaren zenbatekoa 2008-2011 eperako, eta onuradunak.

1. Borondatezko erretiroaren sari osagarriak foru lege honetako I. eranskinak agintzen duen zenbatekoa izanen du 2008an, 2009an, 2010ean eta 2011n, kontuan harturik funtzionarioaren adina, zerbitzu urteak eta kidegoa.

2. Foru lege honetan aipatzen den borondatezko erretiroko sari osagarria aplikatzeko izanen zaie, martxoaren 23ko 6/2007 Foru Legean aipatzen diren langileei ez ezik, alde zuzeneko ohiko erretiroa hartzen duten unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzako langileei ere, 60 urte beteak eta saria jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte, martxoaren 23ko 6/2007 Foru Legearen artikuluko bakarreko 2. idatz-zatiarekin bat.

**Xedapen iragankor bakarra.** Nola aplikatu foru lege hau 2007-2008 ikasturtean alde zuzeneko borondatezko erretiroa hartu duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzako langileei.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzako langileek, 2007ko irailaren 1etik aurrera alde zuzeneko ohiko erretiroa hartzea eskatu dutenek, eskubidea izanen dute borondatezko erretiroko sari osagarria, foru lege honetan 2008rako aurreikusten dena, baldin eta foru lege honetan eta martxoaren 23ko 6/2007 Foru Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzako langileek borondatezko erretiroko sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta sari horren zenbatekoa finkatzen duen martxoaren 23ko 6/2007 Foru Legearen artikuluko bakarraren 4. idatz-zatia indarririk gabe gelditu da, bai eta foru lege honen aurka dauden maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak ere.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**I. ERANSKINA – 2008. URTEA**

2008.- Ondoko kidegoetako funtzionarioak: Bigarren Hezkuntzako katedradunen kidegokoak, Musikako eta Arte Eszenikoetakoak, Arte Plastikoetako eta Diseinukoak, Hizkuntza Eskola Ofizialetakoak eta Hezkuntzako ikuskatzaileen kidegokoak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	9.766,90	9.874,82	9.874,82	9.874,82	9.955,77	9.955,77	9.955,77	10.050,20
Adina. 63 urte	10.063,69	10.063,69	10.063,69	10.158,10	10.158,10	10.158,10	10.252,54	10.602,67
Adina. 62 urte	10.252,54	10.252,54	10.360,48	10.360,48	10.738,20	11.453,18	12.303,06	13.301,32
Adina. 61 urte	10.454,90	10.535,84	11.007,99	11.776,93	12.680,78	13.746,52	14.974,10	16.323,13
Adina. 60 urte	10.967,53	11.736,47	12.626,82	13.679,04	14.906,68	16.350,11	17.955,44	17.955,44

2008.- Ondoko kidegoetako funtzionarioak: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoak, Musikako eta Arte Eszenikoetakoak, Arte Plastikoetako eta Diseinukoak eta Hizkuntza Eskola Ofizialetakoak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	9.846,30	9.955,10	9.955,10	9.955,10	10.036,70	10.036,70	10.036,70	10.131,91
Adina. 63 urte	10.145,51	10.145,51	10.145,51	10.240,70	10.240,70	10.240,70	10.335,91	10.335,91
Adina. 62 urte	10.335,91	10.335,91	10.444,70	10.444,70	10.444,70	10.553,49	10.947,89	11.709,49
Adina. 61 urte	10.539,90	10.648,70	10.648,70	10.648,70	11.247,09	12.049,49	12.987,88	14.089,47
Adina. 60 urte	10.648,70	10.648,70	11.206,30	11.995,09	12.933,47	14.021,47	15.299,85	16.809,44

2008.- Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko edo Arte plastikoetako eta Diseinuko Tailerreko maisu-maistren kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	8.188,99	8.260,69	8.260,69	8.260,69	8.320,48	8.320,48	8.320,48	8.392,20
Adina. 63 urte	8.404,18	8.404,18	8.404,18	8.463,95	8.463,95	8.463,95	8.547,62	8.547,62
Adina. 62 urte	8.547,62	8.547,62	8.619,35	8.619,35	8.619,35	9.073,64	9.623,55	10.293,00
Adina. 61 urte	8.691,09	8.762,81	8.762,81	9.276,85	9.886,56	10.591,89	11.416,76	12.385,09
Adina. 60 urte	8.762,81	9.252,96	9.850,70	10.544,06	11.368,93	12.325,31	13.449,08	14.776,03

2008.- Maisu-maistren kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	8.160,47	8.223,52	8.223,52	8.223,52	8.299,22	8.299,22	8.299,22	8.374,87
Adina. 63 urte	8.866,79	8.866,79	8.866,79	8.929,84	8.929,84	8.929,84	9.018,13	9.018,13
Adina. 62 urte	9.018,13	9.018,13	9.093,82	9.093,82	9.093,82	9.182,11	9.522,64	10.102,83
Adina. 61 urte	9.169,48	9.245,16	9.245,16	9.245,16	9.737,06	10.367,71	11.099,23	11.969,52
Adina. 60 urte	9.245,16	9.245,16	9.711,84	10.342,47	11.061,40	11.919,07	12.915,48	14.088,48

**I. ERANSKINA – 2009. URTEA**

2009.- Ondoko kidegoetako funtzionarioak: Bigarren Hezkuntzako katedradunen kidegokoak, Musikako eta Arte Eszenikoetakoak, Arte Plastikoetako eta Diseinukoak, Hizkuntza Eskola Ofizialetakoak eta Hezkuntzako ikuskatzaileen kidegokoak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	10.743,59	10.862,30	10.862,30	10.862,30	10.951,35	10.951,35	10.951,35	11.055,22
Adina. 63 urte	11.070,06	11.070,06	11.070,06	11.173,91	11.173,91	11.173,91	11.277,79	11.662,93
Adina. 62 urte	11.277,79	11.277,79	11.396,53	11.396,53	11.812,02	12.598,50	13.533,36	14.631,46
Adina. 61 urte	11.500,39	11.589,43	12.108,79	12.954,62	13.948,85	15.121,17	16.471,51	17.955,44
Adina. 60 urte	12.064,29	12.910,11	13.889,50	15.046,95	16.397,34	17.985,12	19.750,98	19.750,98

2009.- Ondoko kidegoetako funtzionarioak: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoak, Musikako eta Arte Eszenikoetakoak, Arte Plastikoetako eta Diseinukoak eta Hizkuntza Eskola Ofizialetakoak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	10.830,93	10.950,62	10.950,62	10.950,62	11.040,37	11.040,37	11.040,37	11.145,10
Adina. 63 urte	11.160,06	11.160,06	11.160,06	11.264,77	11.264,77	11.264,77	11.369,50	11.369,50
Adina. 62 urte	11.369,50	11.369,50	11.489,17	11.489,17	11.489,17	11.608,84	12.042,68	12.880,44
Adina. 61 urte	11.593,89	11.713,57	11.713,57	11.713,57	12.371,80	13.254,43	14.286,67	15.498,42
Adina. 60 urte	11.713,57	11.713,57	12.326,93	13.194,60	14.226,82	15.423,61	16.829,84	18.490,39

2009.- Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko edo Arte plastikoetako eta Diseinuko Tailerreko maisu-maistren kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	9.007,89	9.086,76	9.086,76	9.086,76	9.152,53	9.152,53	9.152,53	9.231,42
Adina. 63 urte	9.244,59	9.244,59	9.244,59	9.310,34	9.310,34	9.310,34	9.402,38	9.402,38
Adina. 62 urte	9.402,38	9.402,38	9.481,29	9.481,29	9.481,29	9.981,00	10.585,90	11.322,30
Adina. 61 urte	9.560,19	9.639,09	9.639,09	10.204,54	10.875,22	11.651,08	12.558,43	13.623,60
Adina. 60 urte	9.639,09	10.178,25	10.835,77	11.598,47	12.505,83	13.557,84	14.793,98	16.253,63

2009.- Maisu-maistren kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	8.976,52	9.045,87	9.045,87	9.045,87	9.129,14	9.129,14	9.129,14	9.212,36
Adina. 63 urte	9.753,47	9.753,47	9.753,47	9.822,82	9.822,82	9.822,82	9.919,94	9.919,94
Adina. 62 urte	9.919,94	9.919,94	10.003,20	10.003,20	10.003,20	10.100,32	10.474,91	11.113,11
Adina. 61 urte	10.086,43	10.169,68	10.169,68	10.169,68	10.710,77	11.404,48	12.209,16	13.166,47
Adina. 60 urte	10.169,68	10.169,68	10.683,02	11.376,72	12.167,55	13.110,98	14.207,02	15.497,33

**I. ERANSKINA – 2010. URTEA**

2010.- Ondoko kidegoetako funtzionarioak: Bigarren Hezkuntzako katedradunen kidegokoak, Musikako eta Arte Eszenikoetakoak, Arte Plastikoetako eta Diseinukoak, Hizkuntza Eskola Ofizialetakoak eta Hezkuntzako ikuskatzaileen kidegokoak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	11.817,95	11.948,53	11.948,53	11.948,53	12.046,49	12.046,49	12.046,49	12.160,74
Adina. 63 urte	12.177,06	12.177,06	12.177,06	12.291,30	12.291,30	12.291,30	12.405,57	12.829,23
Adina. 62 urte	12.405,57	12.405,57	12.536,18	12.536,18	12.993,22	13.858,35	14.886,70	16.094,60
Adina. 61 urte	12.650,43	12.748,37	13.319,66	14.250,09	15.343,74	16.633,29	18.118,66	19.750,98
Adina. 60 urte	13.270,72	14.201,12	15.278,45	16.551,64	18.037,08	19.783,64	21.726,08	21.726,08

2010.- Ondoko kidegoetako funtzionarioak: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoak, Musikako eta Arte Eszenikoetakoak, Arte Plastikoetako eta Diseinukoak eta Hizkuntza Eskola Ofizialetakoak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	11.914,02	12.045,68	12.045,68	12.045,68	12.144,41	12.144,41	12.144,41	12.259,61
Adina. 63 urte	12.276,06	12.276,06	12.276,06	12.391,25	12.391,25	12.391,25	12.506,45	12.506,45
Adina. 62 urte	12.506,45	12.506,45	12.638,09	12.638,09	12.638,09	12.769,73	13.246,95	14.168,49
Adina. 61 urte	12.753,27	12.884,93	12.884,93	12.884,93	13.608,98	14.579,88	15.715,33	17.048,26
Adina. 60 urte	12.884,93	12.884,93	13.559,62	14.514,06	15.649,50	16.965,98	18.512,82	20.339,43

2010.- Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko edo Arte plastikoetako eta Diseinuko Tailerreko maisu-maistren kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	9.908,67	9.995,44	9.995,44	9.995,44	10.067,78	10.067,78	10.067,78	10.154,56
Adina. 63 urte	10.169,05	10.169,05	10.169,05	10.241,38	10.241,38	10.241,38	10.342,62	10.342,62
Adina. 62 urte	10.342,62	10.342,62	10.429,42	10.429,42	10.429,42	10.979,11	11.644,49	12.454,53
Adina. 61 urte	10.516,21	10.603,00	10.603,00	11.224,99	11.962,74	12.816,18	13.814,27	14.985,96
Adina. 60 urte	10.603,00	11.196,08	11.919,35	12.758,32	13.756,41	14.913,62	16.273,38	17.879,00

2010.- Maisu-maistren kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	9.874,17	9.950,46	9.950,46	9.950,46	10.042,05	10.042,05	10.042,05	10.133,60
Adina. 63 urte	10.728,81	10.728,81	10.728,81	10.805,10	10.805,10	10.805,10	10.911,93	10.911,93
Adina. 62 urte	10.911,93	10.911,93	11.003,52	11.003,52	11.003,52	11.110,35	11.522,40	12.224,42
Adina. 61 urte	11.095,07	11.186,65	11.186,65	11.186,65	11.781,84	12.544,93	13.430,07	14.483,12
Adina. 60 urte	11.186,65	11.186,65	11.751,32	12.514,39	13.384,30	14.422,08	15.627,73	17.047,06

**I. ERANSKINA – 2011. URTEA**

2011.- Ondoko kidegoetako funtzionarioak: Bigarren Hezkuntzako katedradunen kidegokoak, Musikako eta Arte Eszenikoetakoak, Arte Plastikoetako eta Diseinukoak, Hizkuntza Eskola Ofizialetakoak eta Hezkuntzako ikuskatzaileen kidegokoak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	12.999,75	13.143,38	13.143,38	13.143,38	13.251,13	13.251,13	13.251,13	13.376,81
Adina. 63 urte	13.394,77	13.394,77	13.394,77	13.520,43	13.520,43	13.520,43	13.646,13	14.112,15
Adina. 62 urte	13.646,13	13.646,13	13.789,80	13.789,80	14.292,54	15.244,19	16.375,37	17.704,06
Adina. 61 urte	13.915,47	14.023,21	14.651,63	15.675,09	16.878,11	18.296,62	19.930,53	21.726,08
Adina. 60 urte	14.597,79	15.621,24	16.806,29	18.206,81	19.840,78	21.762,00	23.898,69	23.898,69

2011.- Ondoko kidegoetako funtzionarioak: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoak, Musikako eta Arte Eszenikoetakoak, Arte Plastikoetako eta Diseinukoak eta Hizkuntza Eskola Ofizialetakoak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	13.105,43	13.250,24	13.250,24	13.250,24	13.358,85	13.358,85	13.358,85	13.485,58
Adina. 63 urte	13.503,67	13.503,67	13.503,67	13.630,38	13.630,38	13.630,38	13.757,10	13.757,10
Adina. 62 urte	13.757,10	13.757,10	13.901,90	13.901,90	13.901,90	14.046,70	14.571,65	15.585,33
Adina. 61 urte	14.028,60	14.173,42	14.173,42	14.173,42	14.969,87	16.037,87	17.286,87	18.753,09
Adina. 60 urte	14.173,42	14.173,42	14.915,59	15.965,47	17.214,45	18.662,57	20.364,11	22.373,37

2011.- Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko edo Arte plastikoetako eta Diseinuko Tailerreko maisu-maistren kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	10.899,54	10.994,98	10.994,98	10.994,98	11.074,56	11.074,56	11.074,56	11.170,02
Adina. 63 urte	11.185,96	11.185,96	11.185,96	11.265,51	11.265,51	11.265,51	11.376,88	11.376,88
Adina. 62 urte	11.376,88	11.376,88	11.472,36	11.472,36	11.472,36	12.077,02	12.808,94	13.699,99
Adina. 61 urte	11.567,83	11.663,30	11.663,30	12.347,49	13.159,01	14.097,80	15.195,70	16.484,56
Adina. 60 urte	11.663,30	12.315,68	13.111,28	14.034,15	15.132,05	16.404,99	17.900,72	19.666,90

2011.- Maisu-maistren kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	10.861,59	10.945,51	10.945,51	10.945,51	11.046,26	11.046,26	11.046,26	11.146,96
Adina. 63 urte	11.801,69	11.801,69	11.801,69	11.885,61	11.885,61	11.885,61	12.003,13	12.003,13
Adina. 62 urte	12.003,13	12.003,13	12.103,88	12.103,88	12.103,88	12.221,39	12.674,64	13.446,87
Adina. 61 urte	12.204,58	12.305,31	12.305,31	12.305,31	12.960,03	13.799,42	14.773,08	15.931,43
Adina. 60 urte	12.305,31	12.305,31	12.926,46	13.765,83	14.722,73	15.864,29	17.190,50	18.751,77

---

**D saila:**  
**HITZARMENAK**

---

## **Ingurumen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Ubidea egitekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 1982ko abuztuaren 10eko Lege Organikoaren 26.b) artikulua xedatutakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak, 2008ko abuztuaren 11n hartutako erabakiaren bidez, Ingurumen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren proiektu bat, Nafarroako Ubidea egitekoa, igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 163. artikuluan eta berarekin bat datozen artikuluetan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.-** Aipatu hitzarmena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.-** Xedatzea hitzarmenaren eztabaida eta bozketan Osoko Bilkuran eginen dela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 164. artikulua ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Nafarroako Ubidea egiteko, Ingurumen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena berritzeko bigarren akordioa**

Madriren, 2008ko .....aren ....(e)an.

**BILDURIK**

Alde batetik, Elena Espinosa Mangana andrea, Ingurumenaren eta Landa eta Itsas Ingurunearen ministroa (apirilaren 12ko 436/2008 Errege Dekretua), Estatuko gobernuaren izenean eta hura

ordezkatzuz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak onartutako idazketaren arabera), Politika Autonomikoaren Gobernuko Batzorde Delegatuak .....ko .....aren .....an eta Ministroen Kontseiluak .....ko .....aren .....an egindako bilkuretan emandako baimena duela.

Bestetik, Miguel Sanz Sesma jauna, Nafarroako Gobernuko lehendakaria (abuztuaren 13ko 1105/2007 Errege Dekretua), Nafarroako Foru Komunitatearen izenean eta hura ordezkatzuz, Nafarroako Gobernuak .....ko .....aren .....an hartutako Erabakiaren indarrez, eta Nafarroako Parlamentuak .....ko .....aren .....an egindako bilkuran emandako baimena duela.

**ADIERAZTEN DUTE:**

1. 1998ko urriaren 19an, Nafarroako Foru Komunitateak eta Ingurumen Ministerioak Nafarroako Ubidea egiteko Lankidetzaren Hitzarmena sinatu zuten.

2.- 1999ko azaroaren 17an, Ingurumen Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak Lankidetzaren Hitzarmena berritzeko akordioa sinatu zuten, Nafarroako Ubidea osoarentzat (1. eta 2. faseak) aurreikusitako inbertsio guztien diruzenbeteak eguneratzeko.

3.- 2000ko urtarrilaren 18an "Canal de Navarra, S.A." estatuko sozietate anonimoa eratu zen. Haren helburu soziala da Nafarroako Ubidearen proiektuan sartuta dauden obra hidraulikoak kontratatu, eraiki eta ustiatzea eta, orobat, azpiegitura hidrauliko hori egin eta ustiatzeko beharrezkoak diren gainerako jarduketak osagarriak egitea.

4.- 2000ko urtarrilaren 19an Ingurumen Ministerioak eta "Canal de Navarra, S.A.k" Zuzeneko Kudeaketarako Hitzarmena sinatu zuten. Horren bidez, Ingurumen Ministerioak estatuko sozietateari agintzen dio Nafarroako Ubidearen obra

hidraulikoak egin ditzala, eta obren eta ondoko ustiapenaren finantzabidea ezartzen da.

5.- 2001eko ekainaren 12an Ingurumen Ministerioak eta "Canal de Navarra, S.A." estatuko sozietateak Zuzeneko Kudeaketarako Hitzarmena eguneratzeko eranskin bat sinatu zuten, Nafarroako Ubidearen obren tamaina, ezaugarriak eta behar den denbora ikusita, hitzarmen hura aldatu zuena, obrak hasi aurretik etorkizuneko erabiltzaileei finantzatzeko konpromisoa eskatu beharra kentzeko. Gainera, "Canal de Navarra, S.A.ren" jardueraren barrenean Nafarroako Ubidearen ustiapenari lotutako aprobetxamendu hidroelektrikoak sartu ziren, zehazki, Itoizko presaren ondokoa eta Nafarroako Ubidearen hasierakoa.

6.- Gaur egun, Nafarroako Ubidearen obren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago hasi dela, bi administrazioek uste dute egokia litzatekeela Nafarroako Ubidea eraikitzeke Ingurumen Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak sinatutako Lankidetzak Hitzarmenari zenbait alderdi garrantzitsu eranstea, hitzarmen hura garatzeko eta behar diren tramiteen bidez sartu izan diren hala "Canal de Navarra, S.A." sozietatearen eraketan nola Zuzeneko Kudeaketarako Hitzarmenaren garapenean, bereziki Nafarroako Ubidearen obrak ustiatu eta finantzatzeko egiturari, pixkana-pixkana abian jartzeari eta zentral hidroelektrikoak abian jartzeari buruzkoak. Horregatik, 2008ko otsailaren 14an, Nafarroako Ubidearen Lankidetzak Hitzarmenaren Segimendu Batzordearen seigarren bilkura egin zen. Batzordeak, bere eskurantzak erabiliz, erabaki zuen bi administrazioei proposatzea Lankidetzak Hitzarmena aldatzea.

Azaldutakoa oinarri harturik, Nafarroako Foru Komunitateak eta Ingurumen Ministerioak Nafarroako Ubidea egiteko sinatutako Lankidetzak Hitzarmena eguneratzeko bigarren akordioa ezartzen da. Hauek dira akordioaren

#### KLAUSULAK

**Lehena.-** Bi administrazioek onartzen dute "Canal de Navarra, S.A." sozietatearekin sinatutako Zuzeneko Kudeaketarako Hitzarmenean agertzen den finantziario akordioa. Kudeaketa hitzarmen hura 1999an bi administrazioek sinatutako akordioaren ondorioa da. Finantziario akordioan adierazten da Nafarroako Ubidearen obren eraikuntzaren % 50 "Canal de Navarra, S.A." sozietatearen funtsen kontura ordainduko dela (funts horiek Estatuko Administrazio Orokorrek eta Nafarroako Foru Komunitateak ekarritako kapitalarekin osatuko dira, 60/40 proportzioan) eta gainerako portzentajea, hots, inbertsioaren % 50 inguru, kanpoko finantziarioarekin ordainduko dela, maileguen bitartez. Mai-

leguen dirua uren erabiltzaileei kobratuko zaizkien tarifei esker itzuliko da. Tarifa horiek kalkulatzeko orduan, kontuan hartuko da ondoko hauek finantzatzeko dirua atera beharra dagoela: itundutako maileguak amortizatzeko baliabideak, kanpoko finantziario horri loturiko interesen kostua eta Nafarroako Ubidearen ustiapen eta zainketa gastuak.

**Bigarrena.-** Nafarroako Ubidea aldeztu aurretik eta partez has daiteke zerbitzu ematen, obra guztiak bukatu baino lehen, erabiltzaileek Nafarroako Ubidean eraikitzen diren tarteak hiri eta industria hornidurarako eta ureztaketarako erabili ahal ditzaten.

**Hirugarrena.-** "Canal de Navarra, S.A." sozietateak Itoizko presaren ondoko eta Nafarroako Ubidearen hasierako aprobetxamendu hidroelektrikoak garatzen ahalko ditu, hala nola Nafarroako Ubidetik eta horren garapenetik etortzen diren gainerako aprobetxamendu hidroelektrikoetarako kontzesioak. Azpiegitura hidroelektriko horiek "Canal de Navarra, S.A." sozietatearen funts berekietatik kanpoko baliabideekin finantzatzeko dira, nahiz eta sozietateak obraren finantziario iragan-korra egin dezakeen bere diruarekin, kapitalaren aukera-kostuak (interesak) sartuz. "Canal de Navarra, S.A." sozietatearenak diren zentral hidroelektrikoak ustiatzeagatik sortzen diren baliabide ekonomikoak haren amortizazio teknikoak, eraikuntzan izandako finantziario kostuak eta zainketaren, mantentze-lanen eta ustiapenaren gastuak ordaintzeko bideratuko dira.

Zentral hidroelektrikoen ustiapenetik ateratzen den gainerako etekin ekonomikoa "Canal de Navarra, S.A." sozietatearen diru-sarrera gisa hartuko da eta sozietatearen finantza, funtzionamendu, zainketa eta ustiapen gastuetan laguntzeko erabiliko da.

"Canal de Navarra, S.A.k" ahalmena du, kasuan kasuko sektorearen legediari jarraikiz, zentral hidroelektrikoen ustiapena zeharka kudeatzeko prozedurak ezartzeko.

**Laugarrena.-** Agiri hau Ingurumen Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Ubidea egiteko 1998ko urriaren 19an sinatutako Lankidetzak Hitzarmenari eta hitzarmen hori eguneratzeko 1999ko azaroaren 17an sinatutako Akordioari eranstea, aldaketa gisa.

Eta lehengo guztiarekin ados izatearen frogagarri, aldeek akordio hau sinatzen dute, bi aletan, ondorio bakarrarekin, hasieran adierazten den lekuan eta egunean.

Ingurumenaren eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministroa: Elena Espinosa Mangana andrea

Nafarroako Gobernuako Lehendakaria: Miguel Sanz Sesma jauna





---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, egoera ekonomikoaren gaineko iritziari eta jarduerari buruzkoa.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, egoera ekonomikoaren gaineko iritziari eta jarduerari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **JABELDURAREN TESTUA**

Roberto Jiménez Allik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 181. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, politika orokorrari buruzko jabeldura hau aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida dadin. Horren bidez ezagutu nahi dugu zein den Nafarroako Gobernuak egoera ekonomikoaz egiten duen balorazioa eta zein diren aurreikusi dituen jarduketak.

Jabelduraren azalpena

Nazioarteko bilakaera ekonomikoak eskaintzen dituen datuek gobernu, diru-agintari, enpresa, sindikatu eta iritzi publiko orokorraren arreta bereganatzen dute. "Zabor-hipotekek" Ameriketako Estatu Batuetan eragindako egoera, petrolioaren prezioen gorakada azkarra, kredituen murrizketa eta adierazleen kontrako bilakaera direla medio, egoera zehatz bat mamitzen joan da; egoera horrek, alde batera utzita hori kalifikatzeko dauden auzi nominalistak –desazelerazioa, krisialdia eta abar– administrazio publiko guztien arreta berezia eskatzen du.

Alde horretatik, zaila da eskualde eta toki esparrutik bilakaera ekonomikoaren izaera orokor eta globalean eragitea. Gero eta globalizatuagoa den nazioarteko testuinguruak, non erregaien prezioa oso altua den –prezioen maila horiek orain arte ezezagunak ziren eta duela gutxira arte aurreikusi gabe zeuden– ihes egiten dio gurea bezalako esparruetako agintari eta botere publikoen jarduketari. Alabaina, politika publikoen eta administrazioen eragin ahalmena, haien esparruan, oraindik ere kontuan hartzeko modukoa da, oparoaldietan nahiz garai zailetan.

Nafarroan, azken hamarkadetan, alor ezberdinetan (industria, zergak, herri lanak, azpiegitura orokorrak, garapen energetikoa, hezkuntza eta prestakuntza ) aurrera eraman diren politikek Foru Komunitateko garapen ekonomikoaren mailari lagundu diote. Europar Batasuneko erakundeetan sartu baino lehen eta sartu ostean, globalizatutako nazioarteko eszenatoki aldakor horren aurretik eta ondoren, eskualde eta estatu mailako politika publikoek ekarpen positiboa egin diote geure eskualdeko garapenari.

Horrenbestez, Nafarroako sozialistok uste dugu Foru Komunitateko erakundeen jarduketa ezin dela mugatu zain egotera, nazioartean oparoaldia eta hazkundea heltzen den arte. Gure betebeharra da, eta bereziki Nafarroako Gobernuarena, lasaitasunetik eta jarrera dinamiko eta aktibo batetik, egungo egoera ekonomikoaren dinamizazioa eta gorakada bideratzea, gure autogobernuaren ahalmenaren eskura dauden jarduketak taxutuz, eta Espainiako Gobernuak aurrera eramandako politika ekonomikoari lagunduz.

Parlamentu-talde honen iritiz, kaltegarriak dira hala planteamendu katastrofistak (izan ere, horien xedea da epe laburrera errentagarritasuna ateratzea alderdiarentzat eta hauteskundeentzat, gure ekonomiaren –nazionala nahiz nazioartekoa– segurtasuna eta sendotasuna ahulduz) nola beste alde batera

begiratzan dutenen jarrera, une hobekak noiz etorriko zain daudenak, eskualdean ideiarik sortzen ez delako. Era berean, kalterako dira, nola ez, alarmismotik egoerari probetxu atera nahi diotenak, langileei eskubide-maila jaisteko, gizarte babesa eta gastua murrizteko, edo neurri ultraliberalak sartzeko. Neurri horiek berezkoagoak dituzte ozeanoz bestaldeko herrialdeek –nahiz eta itsasoaz haraindi ere porrot egin duten– eta oso desegokiak dira Nafarroako herritar gehienok defendatzen dugun Europako ongizate-estatua mantentzeko eta hobetzeko.

Edonola ere, egoera ekonomikoari Foru Komunitateko erakundeetatik egin behar zaio aurre, errealismoz eta perspektibaz, eta inolaz ere ezin da izan aitzakia bat gure zerbitzu publikoen eta gizarte ongizatearen mailak murrizteko. Gizarte-prestazioen murrizketa ezin da onartu Nafarroan egoera ekonomikoari aurre egiteko; besteak beste, gizarte ongizatearen sareak berme-sare gisa bere eginkizuna bete behar duelako hain zuzen ere krisialdi ekonomikoetan, eta, era berean, hamarkadaz hamarkada lortutako banakoen eskubide-mulzoaren osagai delako.

Uste dugu garrantzitsua ere badela, gizarte ongizate mailak mantentzearekin batera, beharrezkoak diren jarduketak lehenestea, zertarako eta ekoizpen inbertsioak, ikerkuntza, berrikuntza eta prestakuntza babestu eta enpleguaren sorrera

sustatzeko. Ekimen eta jarduketa horiek, betiere, eragile ekonomikoen eta sozialen artean eztabaidatu eta adostu beharko dira.

Azkenik, uste dugu garrantzitsua eta ezinbestekoa ere badela Espainiako Gobernuarekin lankidetzan aritzea auzi honi dagokionez. Foru Komunitateko jarduketak estatuak egindakoekin osatu behar dira, eta alderantziz.

Jabelduraren testua:

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak politika orokorrari buruzko jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida dadin. Horren bidez, ezagutu nahi dugu zein den Nafarroako Gobernuak egoera ekonomikoaz egiten duen balorazioa, zein jarduketa egiteko asmoa duen, eta jarduketa horiek bat ote datozen gure parlamentu-taldeak azaldutako hausnarketekin: alegia, murrizketarik ez egitea gizarte alorrean; gizarte ongizatearen mailak mantentzea; enplegua babestea, bai eta ekoizpen, ikerkuntza, berrikuntza eta prestakuntzarako inbertsioa; Espainiako Gobernuaren politika ekonomikoari laguntzea eta, hori guztia, eragile ekonomiko eta sozialen arteko elkarrizketen eta adostasunaren bide naturalean.

Iruñean, 2008ko irailaren 2an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Jabeldura, Nafarroako Gobernuak krisialdiari aurre egiteko ezarritako murrizketek egitura publikoan eta sozialean izanen duten eraginari buruzkoa.**

### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuak krisialdiari aurre egiteko ezarritako murrizketek egitura publikoan eta sozialean izanen duten eraginari buruzkoa.

**2.** Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **JABELDURAREN TESTUA**

Maiorga Ramirezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduren 181. artikulua eta hurrengoan babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Zioen azalpena

UPNk, CDNk eta PSNk Nafarroako Parlamentuan aurrekontuak betetzean murrizketak eginen direla iragarri ondoren, oraindik ere ez dakigu zehazki murrizketa horiek zer-nolako eragin zuzena izanen duten departamentu bakoitzean.

Era berean, Nafarroako Gobernuak lehendakariak iragarri zuen Nafarroako aurrekontu orokorre

buruzko hurrengo lege proiektua "murriztailea" izanen zela, baina ez zituela ukituko sakoneko gizarte-politikak. Alabaina, ez zuen zehaztu zein izanen diren eragin handiena izanen duten zerbitzu publikoak eta sozialak.

Parlamentu-talde honen iritziz, Nafarroako Gobernuak krisi egoera zehatz honi eman dion erantzuna erabat desegokia eta eraginkortasunik gabea da, eta areago: Gobernuko zenbait ardura-dunek eginiko iragarpenenak ikusita, Gobernua egoera ekonomiko horretaz baliatzen ari da sektore publikoa ahultzera zuzendutako neurriak de

facto inposatzeko eta egitura publikoa eta soziala ideologia neoliberalen parametroetarantz bideratzeko.

Horrenbestez, parlamentari honek Nafarroako Gobernuari jabeldura hau aurkezten dio, Nafarroako Gobernuak krisialdiari aurre egiteko ezarritako murrizketek egitura publikoan eta sozialean izanen duten eragina ezagutzeko.

Iruñean, 2008ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte teknologiaren arloko ikerketa sar dezan, jarduera gisa, Osasun Departamentuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak elkarrekin osasunaren eta medikuntzaren arloko ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak eta -jarduerak sustatzeko eta garatzeko duten lankidetzaren hitzarmenaren barruan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizarte teknologiaren arloko ikerketa sar dezan, jarduera gisa, Osasun Departamentuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak elkarrekin osasunaren eta medikuntzaren arloko ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak eta -jarduerak sustatzeko eta garatzeko duten lankidetzaren hitzarmenaren barruan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du; Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte teknologiaren arloko ikerketa sar dezan, jarduera gisa, Osasun Departamentuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak elkarrekin osasun- eta medikuntza-arloko ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak eta -jarduerak sustatzeko eta garatzeko duten lankidetzaren hitzarmenaren barruan.

Zioen azalpena

Ezagutza zientifikoak eta teknologikoak aplikatzean datza gizarte teknologia, horrela, subsistentzia, osasun, hezkuntza, zahartze eta minusbalio-tasun arloko arazoak konpontze aldera.

Teknologia funtsezko abantaila da lehiarako, enpresan arrakasta lortu ahal izateko; baina teknologiaren erabileraren zerbitzua bideratu beharko litzateke herritarren bizi-kalitatea hobetzera. Uste

dugu arlo horretako ikerketa beharrezkoa dela, eta gainera onura ugari ekar ditzakeela, bai menpekotasuna duten pertsonentzat, bai ekonomiarentzat; izan ere, sektore ekonomiko berri bati buruz ari gara, eta, nola ez, enplegu-sorgune berri bati buruz.

Onuragarria da behar zehatzak dituzten kolektiboei (adineko pertsonak, gaixo kronikoak eta minusbaliatuak) bizi-kalitatea emanen dieten teknologia, aplikazioak eta zerbitzuak ikertzea eta aurrera eramatea, aukera emanez, halaber, beharren arabera egoera zehatzetara egokitzeko. Adineko pertsonen dagokienez, prototipo aurreratuak garatu beharko lirake, ondoko xedearekin: konponbideak bilatzea, talde horri aukera emateko

beren etxebizitzetan eta beren kasa denbora gehiagoz bizitzeko, eta pertsona horiek gaitzea beren independentzia luzatzea ahalbidetuko dieten jarduerak aurrera eramateko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte teknologiaren arloko ikerketa sar dezan, jarduera gisa, Osasun Departamentuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak elkarrekin osasunaren eta medikuntzaren arloko ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak eta -jarduerak sustatzeko eta garatzeko duten lankidetzaren hitzarmenaren barruan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 30ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren arazoak aztertu eta antolamendu eta/edo kudeaketa eredu berriari heltzeko.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren arazoak aztertu eta antolamendu eta/edo kudeaketa eredu berriari heltzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, sektoreak egun

duen problematikari eta osasun garraioaren antolamendu eta/edo kudeaketa eredu berriari heltzeko.

Zioen azalpena

Osasun garraioaren zerbitzua ezinbesteko zerbitzua da, lehentasunezkoa, osasun arloan. Nafarroako Foru Komunitatearen garraio eredia 1990eko hamarkadako da, eta, gure ustez, ez ditu lortzen berehalakotasunaren, erosotasunaren eta gogobetetasunaren helburuak, ez erabiltzaileei ez osasun garraio hori balia dadila agintzen duten fakultatiboei dagokienez ere.

Zerbitzu hori itunen ereduaren bidez ematen da, eta horrek gastu ekonomiko handia dakar eta ez ditu erdiesten lortu nahi diren eraginkortasun eta efizientzia mailak.

Sozialisten parlamentu-taldearen iritziz beharrezkoa da aztertzea ohiko garraioan edo garraio programatuan nahiz larrialdietako garraioan dagoen problematika, Nafarroako osasun sareak eskatzen duen berehalakotasun, erosotasun eta gogobetetasun maila beteko duen zerbitzua eskaintze aldera.

Sozialisten parlamentu-taldearen ustez, garraio horretarako bestelako bermeak eskaini beharra dago; horretarako, jakina, egungo eredia birdefinitu behar da, garraio zerbitzua, osasun

arloan hain garrantzitsua dena, hobetzeko neurriak hartze aldera.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-mahai bat sor dezan, sektoreak egun duen problematikari eta osasun

garraioaren antolamendu eta/edo kudeaketa eredu berriari heltzeko. Lan-mahai hori ondokoek osatu dute: Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza Nagusiak, Lizarrako, Tuterako eta Iruñeko ospitaleetako larrialdietako Zuzendaritzek, Nafarroako Larrialdietako Agentziak (112) eta Osasun Larrialdietako Teknikarrien Elkarteak.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 1ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erregelamendu bidez gara dezan Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 68. artikuluan xedatutakoa, % 1 kulturala programari dagokionez.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erregelamendu bidez gara dezan Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 68. artikuluan xedatutakoa, % 1 kulturala programari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da %1 kulturalari dagokion araudia gara dezan.

Zioen azalpena

Espainiako ondare historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 68. artikulua honakoa ezartzen du:

1. Estatuak osoki edo hein batean finantzatzen duen herri lan bakoitzaren aurrekontuan, kontusail bat sartuko da, eta haren zenbatekoa, gutxienez ere, izanen da bideraturiko funts publikoen ehuneko 1ekoa, Espainiako ondare historikoa kontserbatu edo aberasteko lanak finantzatzeko edo sormen artistikoa sustatzeko, ahal dela herri lanean bertan edo haren inguru hurbilenean.

2. Baldin eta herri lana partikularrek eraiki edo ustiatzekoa balitz, administrazio-kontzesio baten ondorioz, eta Estatuaren parte-hartze finantzariorik gabe, ehuneko 1 aplikatuko zaio herri lana egiteko ezarritako guztizko aurrekontuari.

3. Aurreko idatz-zatietan xedatutakotik kanpo geratuko dira ondoko herri lan hauek:

a) Ehun milioi pezetako aurrekontua gainditzen ez duten lanak.

b) Estatuaren segurtasunean eta babesean zein zerbitzu publikoen segurtasunean eragina duten lanak.

4. Erregelamendu bidez ezarriko da artikulua horrek aipatzen duen ehuneko 1 ezartzearen ondoriozko funtsak aplikatzeko sistema zehatza.

Kulturarako ehuneko 1aren aplikazioa arautzen du urtarrilaren 10eko 111/1986 Errege Dekretuaren IV. tituluko 58. artikulua. Errege dekretu horrek hein batean garatzen du Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legea, eta bere 3 b) idatz-zatian zehazten du zein

den kulturarako ehuneko 1ari dagozkion funtsen xedeetako bat:

Espainiako ondare historikoa kontserbatu edo aberasteko lanak egitea, ahal dela herri lanean bertan edo haren inguru hurbilenean, edo dagokion erakundearen jarduketekin zerikusia duten intereseko kultur ondasunetan.

Bada, Estatuko araudiaren arabera, kulturarako ehuneko 1 eskatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da ukituko den monumentua intereseko kultur ondasuna izatea.

Estatuak asko inbertitu du araudi horren babesean Espainiako ondare historikoa kontserbatzeko eta aberasteko.

Estatuko %1 kulturala alde batera utzita, zenbait autonomia erkidegok beren %1 kulturala aplikatzeko dekretuak egin dituzte; hau da, beren aurrekontu autonomikoen kargura finantzatzeko herri lanari dagokion ehuneko 1a.

Orain arte ondoko autonomia erkidegoetan garatu da ehuneko 1 kulturala: Aragoi (1987), Asturiasen (1989), Murtzian (1990), Katalunian (1994), Andaluzian (1995), Euskal Autonomia Erkidegoan (1998), Extremaduran (2001) eta Gaztela eta Leonen (2002).

Nafarroako Foru Komunitateak onartua du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44. artikuluko zenbait epigrafetan, Estatuarekin koordinaturik, kultu-

raren gaineko eskumen osoa, eta baita historia, arte, monumentu, arkitektura, arkeologia, eta zientzia arloko ondarearen gainekoa ere –horrek, halere, ez ditu ezertan galaraziko Estatuak ondare hori esportazioaren eta lapurretaren aurka babesteko dituen ahalmenak–. Hori horrela, Foru Komunitateak Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legea onetsi zuen, baina bere artikuluetan ez zen aipatzen ehuneko 1 kulturala garatuko zenik –hori beste autonomia erkidego batzuen araudietan ere gertatu ohi da–. Beraz, ondokoa ondoriozta daiteke: nahiz eta ekimen horri lotutako ekintza txalogarriak egin diren, Nafarroak ez ditu erregelamenduz garatu indarrean den araudian jasotako aurreikuspenak.

Hori horrela:

Mozioaren testua

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erregelamendu bidez gara dezan Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 68. artikuluan xedatutakoa, % 1 kulturalari dagokionez.

2.- Nafarroako Parlamentuak bi hilabeteko epea ezartzen du, mozio hau onartzen denetik aurrera, aipaturiko ekimen hori Legebiltzarrean aurkezteko.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 12an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pertsona fisiko- en ondarearen gaineko zerga mantentzean, superabitak gastu eta inbertsio sozialari aplikatzea, Iberdrolan duen partaidetza saldean eta lehentasunik ez duten azpiegiturretan inbertsiorik egin ez dezan.**

*IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita pertsona fisikoaren ondarearen gaineko zerga mantentzean, superabitak gastu eta inbertsio sozialari aplikatzea, Iberdrolan duen partaidetza saldean eta lehentasunik ez duten azpiegiturretan inbertsiorik egin ez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuko lehendakari Miguel Sanzek iragarri du bere gobernuak asmoa duela irizpide oso murriztaileak aplikatzeko 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrak egiterakoan.

Hain zuzen ere, aurten hasi dira murrizketak egiten departamentu guztietan –eduki sozial gehiena daukatenak barne–, gastuaren eta inbertsioaren lehen murrizketa bat eginez, 150 milioi eurokoa.

Baina larriena da murrizketa-politika hori helburu dela oinarritzko zerbitzu publikoen finantzaketa –osatu eta hezkuntza alorrean, esaterako– nahiko zigortua dagoen une batean, UPNk eta CDNk azken urteotan eginiko politikaren ondorioz.

Nafarroan osasun edo hezkuntza publikora bideratzen diren aurrekontu-baliabideak dira gure ekonomiaren aberastasunaren portzentaje bat, eta hori Europar Batasunaren batez bestekoa baino beherago dago. Ia azken urte guztietan, Nafarroako gastu eta inbertsio sozialak gure hazkunde ekonomikoaren azpitik egin du gora.

Propaganda ofizialaz haratago, hori da orain arte gertatu dena.

Hori horrela, ez da harrizkoa gure plantilla organikoak gero eta larriago egotea, itxaronzerrendak oso luzeak izatea eta, orokorrean, oinarritzko zerbitzu publikoen kalitatea benetan eta larriki hondatu izana.

Horregatik, bilakaera negatibo horri erantsi behar badizkiogu Gobernuko lehendakariak iragarri dituen aurrekontu-murrizketa berri eta handiak, espero dezakegun bakararra da gizarte gaitako politikak berriro ere nabarmen ahultzea.

Horren ondorioz, beharrezkoa da eskuinak iragarritako politikak zuzentzea, eta horretarako tarte eta ahalmen nahikoa badago.

Tartea eta ahalmena badago erabakiak berehala hartzeko, hain beharrezkoa den gastu eta inbertsio soziala finantzatu ahal izateko aurrekontu baliabide garrantzitsuak izate aldera.

Ildo horretatik, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga mantentzean.

2. Aurreko ekitaldietako superabitak aplikatzeko gastu eta inbertsio sozialak lehenetsi ditzen.

3. Iberdrolako parte-hartze publikoa saldean.

4. Zorpetze jasagarriak sar ditzen urteko aurrekontuen gidalerroetan.

5.- Nafarroa 2012 plana azter dezan, lehentasunekoak ez diren azpiegiturak kentzeko.

Iruñean, 2008ko irailaren 3an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

## **Adierazpen instituzionala, Kooperantearen Eguna dela-eta.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak, adierazpen honen bidez, berriro ere aitortu nahi du Nafarroako kooperanteen lana, beren zereginak egunero oso ingurune soziopolitiko korapilatsuetan, eta batzuetan haien segurtasunerako arriskutsuak direnetan betetzen dituztenena.

Foru Parlamentuaren iritziz, pertsona horiek garapenerako lankidetzarekin duten konpromisoa

eredugarria da gizarte osoarentzat eta erakunde guztientzat, eta, horrenbestez, aitorpena eta estimua merezi du.

2. Nafarroako Parlamentuak herritarrei hats ematen die parte har dezaten, egun hori dela-eta, erakundeek Garapenerako Lankidetzarako Gobernu Kanpoko Erakundeekin adosturik antolatzen dituzten jardueretan.”

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Administrazio isiltasuna aurkaratzeko preklusio epeen zuzenbide erregimenaren gaineko txosten berezia, Nafarroako arartekoaren bulegoak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea ezen administrazio isiltasuna aurkaratzeko preklusio epeen zuzenbide erregimenaren gainean Nafarroako arartekoaren bulegoak eginiko txosten bereziaren berri izan duela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Aipatu txostena Foru Araubideko Batzordearen bilera batean aurkez dadin xedatzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Administrazio isiltasuna aurkaratzeko preklusio epeen zuzenbide erregimenaren gaineko txosten berezia, Nafarroako arartekoaren bulegoak egina**

AURKIBIDEA

- I. Sarrera
- II. Administrazio isiltasunaren jatorriaz
- III. Administrazio isiltasuna aurkaratzeko erregimena estatuko eta Foru Komunitateko legedietan

1. Estatuko legedia

A) Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko 30/1992 Legea, azaroaren 26koa (APAJGAPL)

B) Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legea, uztailearen 13koa (AAJL)

2. Foru Komunitateko legedia

A) Nafarroako Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legea, uztailearen 2koa

B) 13/2000 Foru Lege Nagusia, abenduaren 14koa, Zergei buruzkoa

C) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren 15/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa

3. Deskribatutako zuzenbide erregimenetik eratorritako eskubide positiboa

IV. Administrazio isiltasunaren aurrean helegiteak paratzeko preklusio epeak ezartzearen aurkako doktrina eta jurisprudentzia irizpideak

V. Ondorioak

VI. Iradokizunak

## I. SARRERA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, eta Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubideen eta libertateen alde egiteko eta horiek hobeki babesteko hautatu du Nafarroako Parlamentuak. Herritarrak Administrazioaren balizko abusu eta akatsen aurrean babestea du eginkizun nagusi (Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 1.1 artikulua).

Lege-emaileak Nafarroako arartekoari eman dion funtsezko eginbeharretako bat da Foru Administrazioari zuzendutako eskaerak (zentzu zabalean) hark, behar den denboran eta moduan, espresuki ebatz ditzan zaintzea (lege berberaren 23.2 artikulua).

Eskura dituen baliabide guztien bidez eta edozein kasutan administrazio isiltasuna borrokatzeko egiteko berezia duen erakunde publiko bihurtzen da, honenbestez, Arartekoa.

Beste alde batetik, foru lege bereko 32.6 artikulua ezartzen du Nafarroako Foru Erkidegoko Arartekoak, gertakizunen muntagatik beharrezkoa balitz, txosten ezohiko edo monografiko bat, txosten berezia ere deitua, aurkeztu ahal izango duela Nafarroako Parlamentuan.

Agindu horien esparruan, Nafarroako Arartekoak txosten berezi bat egitea bultzatu du. Administrazio isiltasuna aurkaratzeko interesa dutenei legediak ematen dizkien epeen zuzenbide erregimenari, Auzitegi Konstituzionalak ezarritako doktrinaren arabera, duen egokitasun ezari, eta konstituzio doktrina horri egokitzeko foru legedia aldatzeko komenigarritasunari buruzko txostena, hain zuzen.

Legezkotasunaren, Administrazioa Legearen eta Zuzenbidearen mendeko oso izatearen, eta zuzenbide segurtasunaren printzipioen ikuspegia aintzat hartuta sortu eta egin da txosten hau. Printzipio horiei gehitu behar zaie jurisdikziora eta defentsara heltzeko dauden funtsezko eskubideak nahitaez kontuan hartu behar izatea. EK 24. artikulua zigortzen dituen funtsezko eskubide horiek herritarrak babesten dituzte, oro har, eta administrazio isiltasunak eragindako administratuak, hain zuzen ere.

Honenbestez, txosten honen helburua foru legedian nabaritutako hutsune batzuk adieraztea da. Izan ere, helburu horretarako iradokizunak adieraziko dira ondorengo administrazio jarduna beharrezkoa den eraginkortasunaz gaitzeko herri-

tarren eskubideen bermean [Erakundea arautzen duen legearen 16c) artikulua] eta horientzat bidegabeak edo kaltegarriak izan daitezkeen egoerak saihesteko (foru lege horren beraren 33.2 artikulua).

## II. ADMINISTRAZIO ISILTASUNAREN JATORRIAZ

Azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoa eta Guztiendako Administrazio Prozedura arautzen dituen 30/1992 Legeak, hasiera-ko idazketan, "ustezko egintza" terminoa erabiltzen zuen administrazio isiltasunaz hitz egiteko, eta, hartara, bigarren hori erabiltzea ekiditen zuen. Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak ekarri zuen aldaketak errotik aldatu zuen ikusmolde hori, eta 1958. urteko Administrazio Prozeduraren Legean jasota zegoen ohiko planteamendura itzuli zen, eta, honenbestez, "administrazio isiltasuna" espresioa berreskuratu zen. Administrazio isiltasun negatiboa ez da "ustezko egintza"tzat jotzen, ez baitago berez egintza bat, baizik eta egintzarik ez egotea da zenbait eragin juridiko sortzen dituen. Administrazio isiltasun positiboa, berriz, administrazio egintzatzat jotzen da, nahiz eta ustezkoa izan, eragin juridikoak dituen egintzatzat, hain zuzen.

APAJGAPLren 43.3 artikulua, indarrean dagoen idazketan, isiltasun positiboaren eta isiltasun negatiboaren eragin juridikoak desberdintzen ditu. Administrazio isiltasun positiboa helburu guztiatarako prozedura amaitzeko administrazio egintzatzat jotzen da; izan ere, berariazko erabaki berankorrek hori bera berretsi besterik ezin du egin. Administrazio isiltasun negatiboak, positiboak ez bezala, eragin juridiko desberdina du, erreferentzia egindako legeko agindu horrek honakoa baitio: "Administrazio isiltasunarengatik ezezkua emateak interesdunei bidezkoa den administrazio helegitea edo administrazioarekiko auzi helegitea paratzea onartzeko eraginak besterik ez ditu". Isiltasun negatiboa, beraz, soil-soilik auzibidearenak diren eragin fikzio huts moduan hartzen da. Hau da, egiatan ez bada ere existitzen, erantzun baten ustekizuna dago, dagokien interesdunek isiltasun negatiboa aurkaratzea ahalbidetu ahal izateko. Honenbestez, isiltasun negatiboaren eraginek ez dute Administrazioa lotzen, eragin positiboak dituen berariazko erabaki berankorra har baitezake.

Administrazio isiltasun negatiboaren jatorriari dagokionez, berriz, deskribatutako zuzenbide erregimenaren ildotik, Auzitegi Konstituzionalak errepikatutako doktrina da honako hau: "Izaera negatiboa duen administrazio isiltasuna legeko fikzioa da, egokiak diren helegiteak aurretik, administratua, Administrazioaren ez aritzearen eraginak

gaindituta, epailearen bidera heldu ahal izateko helburua duena". (Besteak beste, urtarrilaren 16ko 14/2006 AKE). Era berean, 2005eko uztailaren 20ko AGE –EE 6886- "egintza fikzioa"z mintzo da.

### III. ADMINISTRAZIO ISILTASUNA AURKARATZEKO ERREGIMENA ESTATUKO ETA FORU KOMUNITATEKO LEGEDIETAN

#### 1. Estatuko legedia

A) *Administrazio Publikoen Araubide Juridikoa-ri eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko 30/1992 Legea, azaroaren 26koa (APAJ-GAPL).*

Administrazio bidea ahitzen ez duten egintzen eta administrazio erabakien aurrean, gora jotzeko helegitea paratu ahal da. Administrazio bidea ahitzen duten egintzen aurrean, borondatez edo hautaz paratu ahal da berraztertze-helegitea.

115.1 eta 117.1 artikuluen arabera, egintza ez bada berariazkoa, gora jotzeko helegitearen edo berraztertze-helegitearen bidez aurkaratzeko epea hiru hilabetekoa da. Araudi espezifikoarekin bat, administrazio isiltasunaren eraginak gertatzen diren egunaren hurrengoan hasten da hiru hilabete epe hori.

Gora jotzeko helegitearen gaineko erabakia emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa da. Erabakirik egokitu gabe igarotzen bada epea, ezezkoa emandakotzat jo behar da.

Berraztertze-helegitearen gaineko erabakia emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabete epea da. Behin epe hori igarotzen denean, hori ere ezezkoa emandakotzat jo behar da.

Arau nagusiaren arabera, berariaz erabakitzen ez diren administrazio helegiteak ezezkoa emandakotzat jotzen dira. Eskaera baten ustezko ezezkoa emateari helegitea aurkezten zaionean aldearantzikatu egiten da. Kasu horietan, helegiteari erabakirik ez bazaio egokitzen hiru hilabete epean, ustezko egintza positiboaren ondorioz helegitea onartutzat ulertzen da (43.3.b artikulua).

B) *Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legea, uztailaren 13koa (AAJL).*

Administrazio helegiteei berariazko edo ustezko ezezko ematearen aurrean edo, bere kasuan, zuzenean administrazio bidea ahitzen duten administrazio egintzen eta araudiaren xedapenen aurrean, maila honetako jurisdikzioan administrazioarekiko auzi helegitea paratu ahal da.

46.1 artikulua arabera, administrazio isiltasunaren aurrean aurkaratzeko epea sei hilabete

koa da, eta, araudi espezifikoarekin bat, isiltasuna gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera hasten da epe hori.

#### 2. Foru legedia.

A) *Nafarroako Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa*

333.1 artikulua arabera, administrazioarekiko auzi jurisdikzioaren kontrolaren mende dauden Nafarroako toki erakundeen egintzak eta adostasunak aurkaratu egin ahal dira, edo dagokien organoetan legedi nagusian ezarritako administrazio edo jurisdikzio helegiteak paratuta, edo Nafarroako Administrazio Auzitegian foru legean bertan araututa dagoen gora jotzeko helegitea paratuta.

Tokiko erakundeen administrazio isiltasunaren aurrean administrazio helegiteak paratzeko bi hautabide ondorioztatzen dira erregimen honetatik:

a) Hautazko berraztertze-helegitea edo gora jotzeko ohiko helegitea. APAJGAPL delakoan ezarrita daudenak dira paratzeko eta erabakitze epeak, lehenago aipatutakoak.

b) Gora jotzeko helegitea Nafarroako Administrazio Auzitegian (NAA). Administrazio isiltasunaren aurrean, helegitea paratzeko epea hilabete epea da ustezko ezezkoa ematea gertatu den datatik aurrera (337.1 artikulua). Helegitea paratu den datatik aurrera sei hilabete epea dago, berriz, helegitea erabakitze epea. Erabakirik egokitu gabe igarotzen bada epe hori, ezezkoa emandakotzat jo behar da (338.2 artikulua).

Berariazkoa edo ustezkoa izan, administrazio helegite horietako edozeinen ezezkoaren aurrean, jakina, AAJLren 46. artikulua ezarritako epeetan, administrazioarekiko auzi helegitea paratzeko aukera dago.

B) *13/2000 Foru Lege Nagusia, abenduaren 14koa, Zergei buruzkoa.*

147 artikulua arabera, legez aurreikusita dauden baldintzetan, administrazio bidean, zerga administrazioak emandako egintzen aurka egokiak diren helegiteak eta erreklamazioak paratzeko eskubidea dute zerga betebeharpekoek. Hautazko berraztertze-helegitea eta erreklamazio ekonomiko-administratiboa hartzen ditu gogoan.

Ohiko helegitea erreklamazio ekonomiko-administratiboa da. 158 artikulua arabera, helegitea aurkeztutako egintza jakinarazi den egunaren hurrengotik aurrera hilabete epea dago erreklamazio ekonomiko-administratiboa paratzeko, edo, bere kasuan, berraztertze-helegitearen ezezko esangabearen egunaren hurrengotik aurrera. Erabakitze epea urtebetekoa da. Behin epe hori

igaro denean, interesdunak ezezkoa emandakotzat jo beharko du erreklamazioa, dagokion helegitea paratzeko helburuz, eta ezezkoa emandakotzat ulertu behar den egunaren hurrengotik aurrera hasiko da horren epea.

*C) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren 15/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa.*

Foru Komunitateko Administrazioaren egintzen, erabakien eta adostasunen aurrean, berariazkoak edo ustezkoak izan, 57 eta 58 artikuluek gora jotzeko helegitea eta hautazko berraztertze-helegitea hartzen dituzte gogoan. APAJGAPL delakoan ezarrita daudenak dira paratzeko eta erabakitzekeoak, lehenago aipatutakoak.

Berariazkoa edo administrazio isiltasunagatik izan, administrazio helegite horietako edozeinen ezezkoaren aurrean, AAJLren 46. artikulua ezarritako epeetan, administrazioarekiko auzi helegitea paratzeko aukera dago.

### **3. Deskribatutako zuzenbide erregimenetik eratorritako eskubide positiboa**

Goian deskribatutako legezko erregimenaren arabera, ez dago zalantzarik administrazio isiltasuna aurkaratzea, positiboa edo negatiboa izan, preklusio epe zorrotzetara lotua dagoela. Epe horiek igarota, administrazio edo jurisdikzio helegitea, deskribatutako legezko arauak diotena hitzez hitz hartuta, ez onartutzat jo behar da garaiz kanpokoa delako.

Preklusio epeen erregimen zorrotz hau foru legegileak ere modu irekian onartu du. Izan ere, azaldu den moduan, bai Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Legeak eta bai Zergen Foru Lege Nagusiak ere berariaz ezartzen dituzte preklusio epeak administrazio isiltasuna aurkaratzeko, edo Nafarroako Administrazio Auzitegian gora jotzeko helegitea paratuta, edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa paratuta.

Legezko erregimen hau gauzatzean –administrazio organoak, administrazio helegiteei dagokienez, eta epailearen organoak, jurisdikzio helegiteei dagokienez-, berriki arte (are gehiago, ohikoa da egun hori egiten jarraitzea batzuek) modu sistematikoan ez onartutzat jo izan dira administrazio isiltasunen aurka paratutako helegiteak, epeak igaro direnean (hilabete, hiru edo sei hilabete), isiltasunaren ondoriozko egintza edo ezezkoa ematea gertatu denetik.

Nolanahi ere, ez da alferrikakoa adieraztea APAJGAPL eta AAJL indarrean jarri aurretik aplikazitekeen erregimena beste bat zela. Izan ere, 1956ko Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioaren Legeak 58.2 artikuluan ezartzen bazuen ere admi-

nistrazioaren isiltasunaren aurka administrazioarekiko auzi helegitea paratzeko epea urtebetekoa zela (orain sei hilabetera murriztua), jurisprudenzia baiesten zuen ez zegoela garaiz kanpokotasuna hautematerik jurisdikzio bidean administrazioak erabakitzekeo duen betebeharra bete gabe uzten zuenean.

1192. urtean indarrean dagoen APAJGAPL indarrean jarri zenean jaio zen preklusio epeen zuzenbide erregimen berria; administrazio eta epaile organoek, oro har, onartu eta aplikatu duten erregimena, hain zuzen. Hasierako idazketan, administrazio isiltasun negatiboak ez zuen fikzio juridiko hutsaren jatorria, baizik eta administrazio egintza benetakotzat jotzen zen, ezezkoa ematen zuen egintzatzat, eskatu eta eman behar zen ustezko egintzaren sinestamendatuaren arabera.

1992. urtetik aurrera preklusio epeak justifikatzeko erabilitako doktrina eta jurisprudenzia irizpidea zuzenbide segurtasunarena izan da. Era berean, epe horiek gaindituta paratzeagatik helegitea hori ez onartzea justifikatzeko irizpidea administrazio isiltasuna sendoa eta onartua bihurtu dela da. Izan ere, APAJGAPLren 114.2 artikulua, hasierako idazketan, zioen helegitea paratzeko epea helegiterik paratu gabe igaro bada erabakia sendoa izango dela helburu guztietarako (APAJGAPLren oraingo 115.1 artikulua, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazketan).

Gero, 1999. urtean egindako aldatetaren ondorioz, ustezko egintzaren sinestamendua desagertu zen, eta berriro taxutu zen administrazio isiltasun negatiboa fikzio juridiko huts moduan, berme moduan jokatu ahal izateko.

### **IV. ADMINISTRAZIO ISILTASUNAREN AURREAN HELEGITEAK PARATZEKO PREKLSIO EPEAK EZARTZEAREN AURKAKO DOKTRINA ETA JURISPRUDENTZIA IRIZPIDIAK**

Ezarritako epeen preklusioari eta iheskortasunari dagokienez, oro har, doktrina zientifikoak kritikatu egin du deskribatutako zuzenbide erregimen hori, Zuzenbidearen profesionalen nekeak ikusirik eta, batez ere, herritarrei sortzen dien babesgabetasuna ikusirik, jurisdikziora eta beren interesen defentsara heltzea justifikaziorik gabe eragoztean. Kritika honen aldeztaille sutsua GARCÍA DE ENTERRÍA izan da.

Administrazioak berak ez betetzeagatik onura ateratzea emaitza ez-logikoak eragin ditu kritika horiek. Izan ere, berariazko erabakia ez egotearen ondorioa interesdunek defentsarako dituzten aukerak denbora tarte jakinetan itxita gelditzea da eta,

behin igaro direnean, babesgabetasuna ezin itzulizko bihurtzeko, nahikoa da Administrazioak ez betetzea mugarik gabe luzatzea, helegitea aurkezteko epea berriro ez irekitzeko. Laburbilduz, Administrazioa berariaz erabakitze duen betebeharra bete gabe uztera akuilatzen du sistemak, eta, ondorioz, eraginkorra ez den Administrazioa bulztatzen du.

Kritika horiek berretsita eta argi eta garbi administrazio isiltasunaren aurrean helegiteak paratzeko eperik ez egotearen alde, Auzitegi Konstituzionalak doktrina zabala garatu du (funtsean honako bi epai hauetan: urriaren 27ko 188/2003 eta urtarrilaren 16ko 14/2006). Honen ondoren dator labur azalduta.

Administrazio isiltasun negatiboari buruzko doktrina garatzeko, jurisdikziora heltzeko funtsezko eskubidea bermatzen duen ikuspegia hartu du abiapuntu Auzitegi Konstituzionalak. Hasteko, doktrinak gogora ekartzen digu epailearen erabaki batek helegite bat ez onartzea ekartzen duenean, zenbaketa baten ondorioz, edo akats nabarmen bat ikusten delako, oinarria nahikoa ez, ez-arrazoizkoa edo apetaren araberrakoa delako, edo interpretazio irizpide bat erabili bada bere hertsikeria, gehiegizko formaltasun edo beste edozein arrazoirengatik epailearen babes eraginkorrerako eskubidea eraginkorra izan dadin aurkakoa bada, pro actione arau hermeneutikoak epailea lotzen duela argia da. Hertsikeria, gehiegizko formaltasuna edo zaintzen dituzten helburuen eta prozesua ixtearen ondorioaren arteko proportziorik eza dela eta epailearen organo batek bere mendeko den nahian erabaki dezan dagoen eskubiderako justifikaziorik ez duen oztopo bihurtzen diren interpretazioak eta legezko baldintzen aplikazioak alde bateara gelditu behar dute.

Premisa horietatik abiatuta, Administrazioak ez betetzeak, alde batetik, berariaz erabakitze duen legezko betebeharra bai eskaerak eta bai administrazio helegiteak ere, eta beste aldetik, helegiteen beharrezko bideratzea jakinarazteko duen betebeharra –hain zuzen ere, administrazio erantzuna ez emateagatik- ekartzen du Administrazioak onura ateratzea bere irregulartasunari. Eta hori zorrotz arbuiatzen du, honako hau adierazita: “Administrazioak ezin du onurarik atera herritarren eskariak epean berariaz erabakitze duen betebeharra bete gabe uztetik. Zuzenbidearen Estatuaren klausularekin lotzen da betebeharrak hori (EK 1.1 artikulua), bai eta EK 24.1, 103.1 eta 106.1 artikuluek aldarrikatzen dituzten balioekin ere”.

Arrazoibidea jarraitzeko, honako hau adierazten du: izaera negatiboa duen administrazio isiltasuna legezko fikzioa da, dagozkion helegiteak

aurretik, administratua epailearen bidera hel dadin aukera ematen dion legezko fikzioa, hain zuzen (Administrazioaren jarduerarik ezaren eraginak gaudituta heltzen da epailearen bidera). Honenbestez, kasu horietan, ezin da arrazoizkotzat jo “Administrazioaren jarduerarik eza saritzea, erabakitze duen betebeharra bete balu baino egoera hobean utzita” dioten legezko aginduen interpretazio hori. Administrazioaren jarduerarik ezaren eragin geldiarazleak saihesteko sorturtako ezarpen bat bada isiltasun negatiboa, agerikoa da jatorri horretako ustezko erabaki baten aurrean herritarra ez dagoela behartuta helegitea aurkezteko, beti eta edozein kasutan, bere jarduerarik eza baimen-ustezko egintza duen baimena- bihurtzeko aitzakiarean, eta, hartara, Administrazioari exijitzen ez zaion agudotasun betebeharrak bat exijitzen baitaio berari. Jokaera pasibo honetatik ondorioztatzeak –Administrazioaren jokabidetik bertatik eratorria- baimen bat, denboran eta forman aurkaratu zen administrazio egintza baten edukiarekin, esan nahi du jurisdikziora heltzeko eskubidearen ikuspegitik, guztiz ez-arrazoizkoa den interpretazio bat, EK 24.1 artikuluan aurreikusia dagoen epailearen babes eraginkorrerako eskubidearen funtsezko eduki moduan.

Arrazoibideak amaitzeko, honako hau adierazten du: “Guztiz onartezina da administrazio publiko batek –kontuan izanik Legeari eta Zuzenbideari guztiz men eginez jokatu behar duela (EK 103.1 artikulua)- lehenbizi aintzat ez hartzea herritarren ganako dituen betebeharrak eta gero, ordea, horien betebeharrak exijitzeko gehiegizko arreta izatea, nahi den administrazio eraginkortasun bakar batek ere ezin baitu justifikatu gure legediko balio gorenetakoa baten gaineko ezjakintasuna: justizia balioa (EK 1.1 artikulua)”. Hori dela eta, ezin da ulertu, izaera negatiboa duen administrazio isiltasunarengatik, berraztertze-helegite baten ustezko aintzat ez hartzeko erabakiak nolabait administrazio egintza guztiek izan behar dituzten baldintza formal guztiak”.

Horiek horrela, segurtasun juridikoaren gaiari zuzenean heltzeko, egokia da hizpidera ekartzea Auzitegi Gorenaren epai bat, 2004ko urtarrilaren 23koa, hain zuzen –EE 2004/1021-. Izan ere, epai horretan gogoeta interesgarriak egiten dira segurtasun juridikoaren gainean, administrazio jakin batek honako hau legezko doktrinatzat jo zedila eskatzen zuen helegite bat Legearen alde erabakitzea zela eta: “Ustezko egintza negatiboen aurrean, hau da, asmoari ezezkoa ematen diotenen aurrean, administrazioarekiko auzi helegiteak paratzeko epea Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioaren Legearen 46.1 artikulua ezarritakoa da: bere araudi espezifikorekin bat, ustezko egintza

gertatu den egunaren hurrengotik hasita, sei hila-bete”.

Helegitea bultzatu zuen administrazioak tesi horien oinarri moduan bi argudio erabili zituen. Bat, izaera materialekoa, aurkaratutako epaian bildutako doktrinak, epea igarota helegitea onartua zuen, segurtasun juridikoa argi urratzen duela ulertzen duelako. Eta bestea, jatorri formala duena, doktrina horrek AAJLren 46.1 artikulua hitzez hitz dioena urratzen duela uste duelako. Izan ere, gorago ikusi dugunez, auzi helegitea paratzeko epea, administrazio isiltasuna denean, ustezko egintza gertatu denetik sei hilabetekoa dela aurreikusten du.

Auzitegi Gorenak honako hitz hauekin erantzun zion argudio materialari (segurtasun juridikoa urratzea):

“Segurtasun juridikoa haustea dela eta ematen den argudioa, helegitea paratzeko idatziak duena, harrigarria da.

Administrazioak ezin du ezkutatu, ez eta jakin gabe egon ere, bera dela segurtasunik eza egoera sortzen duena, berariazko erabakirik ez ematean. Ez egite hori APAJGAPLren 42.1 artikuluan dagoen agindua zuzen bete gabe uztea dela ere ezin du ahanzi.

Hori horrela izanik, ezin onartuzkoa da, argi eta garbi legezkoa ez den eta legediaren aurkakoa den jokaera baten bidez, segurtasunik ez juridikoko egoera sortzen duenak segurtasunik eza hori bere alde erabiltzea, sortutako segurtasunik ezaren eraginak jasaten dituztenen aurrean horretatik abantailak lortzeko asmoz.

Behin eta berriz esan dugu inork ezin diola onurarik atera bere akatsei, egin ezei edo arau hausteei. Eta hori da, eta ez beste ezer, Administrazioak egin nahi duena segurtasunik ez juridikoa aurka jartzen duenean. Hori dela eta, legea bete ta, Administrazioak segurtasunik ez juridikoaren egoera bertan behera utzaraz dezake, errotik, hori existitzea deitoratzen baita hemen”.

Eta, hain zuzen, segurtasun juridikoa era berean argudiatu da, bai Administrazioaren edo interesa duten beste batzuen alde, bazter batera utzita kasu horietan erabakitzeko duen betebeharra Administrazioak berak bete gabe uztearen biktimazuzenaren segurtasun juridikoa, bai biktimazuzenaren alde eginez. Baina Auzitegi Gorenak argi eta garbi adierazten duen moduan, ezin onartuzkoa da Administrazioak aitzakiatzat erabiltzea segurtasun juridikoaren printzipioa bere jarduerarik ezetik ondorioztatzen den onura bat lortzeko. Izan ere, baliteke interesa duten beste batzuk egotea, admi-

nistrazio isiltasuna aurkaratzeko epea mugarik gabe uzteak segurtasunik ez juridikoa ekartzen dienak, hain zuzen, beren eskubideei edo banan-banako egoera juridikoei kalte egiteko aukera dagoelako (adibidez, kontzesio edo baimen baten tituludunak, oposiziogile gauditua eta funtzionario izendatua...). Interesen liskar honetan, interesdun zuzenarena lehenetsi behar da, hau da, biktimazuzenarena. Egindako kalte-galeren ondorioz Administrazioak ordain diezaion eskubidea izango du kalte egindako besteak, baina inoiz ez du izango zuzenaren kalte egindakoak duen legezko interesari bere interesa inposatzekoa.

Jatorri formala duen argudioari dagokionez, berriz, Auzitegi Gorenak arbuia egiten du, APAJGAPLren 42.2 artikuluan eta jada azaldua dagoen Auzitegi Konstituzionalaren doktrinan oinarrituta. Hain zuzen ere, honako ondorioa ateratzen du:

“Testu honen exegesiak (APAJGAPLren 42.2 artikulua), lehenago transkribatutako konstituzio doktrinak osatua, behartzen du ondorioztatzeraz, administrazio publikoek interesdunei agindu horrek erreferentzia egiten dien muturren gaineko informazioa ematen ez dien bitartean, ez direla igarotzen hasten helegiteak paratzeko epeak”.

## V. ONDORIOAK

1. Administrazio isiltasuna, bai administratiboaz eta bai jurisdikzionala ere, aurkaratzeko legediaz arautzen duten Estatuko legeek preklusio izaera duten epe batzuk ezartzen dituzte.

2. Administrazio Auzitegian gora jotzeko helegiteak eta erreklamazio ekonomiko-administratiboaz arautzeko, foru legeek ere berariaz ezartzen dituzte preklusio epeak administrazio isiltasuna aurkaratzeko. Gainerako administrazio helegiteetarako zuzenaren igortzen da Estatuko legeek ezartzen duten legedira.

3. Hala eta guztiz ere, doktrina zientifikoa eta, batik batik, jurisprudenzia (berezi, Auzitegi Konstituzionalarena) legedi horien aurka daude. Izan ere, beren ustez argi urratzen dituzte jurisdikziora eta defentsara heltzeko administrazio isiltasunaren biktimak dituen eskubideak, EK 24 artikulua zigortzen dituen oinarrizko eskubideak, hain zuzen. Horrez gain, biak dira legedi horien aurka, segurtasun juridikoaren printzipioa ez aplikatzea ekartzen diotelako biktimari.

4. Ez dago zalantzarik administrazio publikoak berariaz erabakitzeko duten betebeharra bete gabe uztera akuilatzen dituela preklusio epeen sistemak, eta, ondorioz, eraginkorra ez den Administrazioa bultzatzen duela. Honenbestez, EK 103 artikuluko agindu bat urratzen du.

5. Nolanahi ere, Auzitegi Konstituzionalaren eta Auzitegi Gorenaren deskribatutako doktrinari administrazio publikoek nahitaez men egin behar diotela kontuan izanik, ezarritako legezko erregimena ezin da errealtatean gauzatu. Forma aldetik indarrean dagoen araudia dugu, baina aplikatu ezin dena. Inkoherentzia juridikoa dakar horrek berekin, eta, zalantzarik gabe, nahasmendua eta ziurtasunik eza sortzen die, bai herritarrei, eta bai Zuzenbideko funtzionarioei berei eta profesionalei ere. Horrek aholkatzen du legezko neurri egokiak hartzea, gutxienez Nafarroan, egoera negargarri eta nahasi hau behin betiko amaitzeko, Konstituzioaren 9.3 artikulua aldarrikatzen duen segurtasun juridikoaren konstituzio printzipioaren aurkako baita.

## VI. IRADOKIZUNAK

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Foru Legearen 16c), 33.2 eta 34.1 artikuluen arabera, erakunde honek honako hau iradoki behar die Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari, biak legegintza ekimena duten eta lehenak, gainera, legegintza eskumena duen erakunde diren aldetik:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea aldatzea bultzatzea. Izan ere, legezko erabakitasun bat sartzea da helburua. Hartara, erabakitasun horretan zehaztuko da ez dagoela preklusio eperik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren administrazio isiltasun negatiboaren edo positiboaren aurrean administrazio helegiteak paratzeko.

2. Nafarroako Toki Administrazio-ko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzea bultzatzea. Izan ere, batetik, legezko erabakitasun bat sartzea da helburu bat. Hartara, erabakitasun horretan zehaztuko da ez dagoela preklusio eperik, tokiko erakundearen administrazio isiltasun negatiboaren edo positiboaren aurrean berraztertze eta gora jotzeko administrazio helegiteak paratzeko, arruntak edo foruarenak izan. Eta beste alde batetik, 337.1 artikuluan dagoen erabakitasuna, Administrazio Auzitegian gora jotzeko helegiteari dagokionez, ezabatzea da beste helburua. Hartara, tokiko erakundearen administrazio isiltasuna aurkaratzeko dagoen hilabete bateko preklusio epea indarririk gabe geldituko da.

3. Nafarroako Zergen abenduaren 14ko 13/12000 Foru Lege Nagusia aldatzea bultzatzea. Izan ere, batetik, legezko erabakitasun bat sartzea da helburu bat. Hartara, erabakitasun horretan zehaztuko da ez dagoela preklusio eperik, zergen administrazio-ko organoen isiltasun negatiboaren edo positiboaren aurrean berraztertze administrazio helegiteak eta erreklamazio ekonomiko-administratiboa paratzeko, arruntak edo foruarenak izan. Eta beste alde batetik, 158 artikuluan dagoen erabakitasuna ezabatzea da beste helburua. Hartara, berraztertze-helegitea esan gabe ez onartzearen erreklamazio ekonomiko-administratiboaren bidez aurkaratzeko dagoen hilabete bateko preklusio epea indarririk gabe geldituko da.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	